

## Esparru herriari begira

### ■ Egungo esparrua gainditzeko bidea

# Hiru proposamen mahai gainean

Egungo esparru juridiko-politiko gainditzeko hiru proposamen daude mahai gainean: EAren V. Kongresuak onartutako txostenean bildutakoa, EAJren Batzar Orokorra onartutako *Izan, erabakitze* txostena eta EHk aurkeztutako *Euskal Demokrazia osatzeko oinarriak eta garatzebideak* izenburukoak. Hona hemen hiruren sintesia:



XOUSE SIMAL



JOXE LACALLE



CRISTINA ABADIA / EFE

## Proiektu politikoa eta erreferenduma



### ■ helburua

- Euskal Herriaren izatearen onarpena, erabaki ahal izateko (nortasun nazionalaren onarpena)

### ■ abiapuntuak

- Gernikako Estatuaren eta Foru Hobekuntzaren marko instituzionala eta eskubide historikoak
- Autogobernu garapen ezberdina
- Nazio kontzientzia ezberdina

### ■ giltzarriak

- Subiranotasuna
- Lurraldetasuna («guztioak, hiritar eta lurraldeok, Euskal Herriaren subjektu politikoren partaide izateko aukera izango dute»)
- Gizartea

### ■ oinarriak

- Bakea: «Edozein ekimen politikoren aurretik, edozein aldetako bortizkeria eta bortxa edo mehatxu era guztiak desagertu egin behar dira behin betiko»
- Euskal Herriaren onarpena
- Euskal Herriaren lurralde osotasunaren onarpena
- Tresna demokratikoak erabiltzea
- Atxikipen askea

### ■ prozedura

- Eztabaida politiko eta soziala abiatzea, foro bat edobatzuk osatuz (gizartearen parte-hartzea bermatuta)
- Euskal Herriaren onarpena biltzen duen proiektu politikoa zehaztea eta idaztea, Eusko eta Nafar legebiltzarren gidaritzapean (proiektuaren gutxieneko edukiak: Euskal Herriaren barne eta kanpo harremanen sistema artikulatua eta autogobernu politikoren eduki materiala)
- Egungo marko juridikoen erreforma
- Eraitza berresteko erreferenduma

## Hauteskundeak eta Batzar Eraikitzailea



### ■ helburua

- Euskal Herriaren hitza adierazi eta eraginkor bilaka dezakeen eredu instituzional subirano nazionala sortzea

### ■ abiapuntuak

- Egungo markoaren agorpena eta berriaren premia
- Estaturik gabeko nazioen ernaltzea
- Europako berreraikuntza

### ■ gakoak

- Euskal Herria subjektu politiko gisa egitura-tzea

### ■ oinarriak

- Lurraldetasunaren printzipio demokratikoa
- Euskal herritar guztien parte-hartzea
- Eragile sozial, sindikal zein politiko guztien parte-hartzea

### ■ prozedura

- Hauteskundeak egita Euskal Herri osoan Batzar Eratzailea osatzeko: «Hauteskundeak egitea iruditzen zaigu mekanismorik egokiena, herri honen prozesu eratzaila gidatu behar duen instituzioak zilegitasun demokratikoaren maila gorena behar duelako» (Euskal Herriari bizi eta lan egiten duten guztiek dute eskubidea hauteskundeotan parte hartzeko)
- Batzar Eratzailea osatu «euskal gizarteari proposatutako zaion marko politiko-jurudikoren eskaintza gauzatzeko» eta Euskal Herriaren ordezkari ofiziala gauzatzeko
- Esparru politikoren eskaintzak honako ezaugarri hauek eduki beharko lituzke: Euskal Herriak dituen botere mailak, Euskal Herriak beste herriekiko eta bereziki Espainia eta Frantziarekiko harremanen konfigurazioa eta Euskal Herriko barne antolakuntza eta eredu instituzionalerako egiten duen proposamen zehatza

## Subiranotasunaren aldarrikapena, legez



### ■ helburua

- Egungo erregimen estatutarioa gainditu eta autodeterminazio eskubidea gauzatzeko: «XIX. mendea Foruen baliogaitzearena izan bazen eta XX. mendea autonomismoarena izan bada, XXI. mendeak autodeterminazioarena izan behar du, subiranotasuna eta independentzia lortzeko».

### ■ oinarriak

- Indarkeriarik eza: «Bide honetako edozein aurrerapausok indarkeriarik ezak eta alderdi guztien aldetik mota guztietako indarkeriaren gaitzespenak lagunduta etorri behar du»
- Herri borondatearekiko begirunea
- Gardentasuna
- Protagonismo instituzionala
- Ahalik eta integrazio handiena, eta haus-tura sozialik eza

### ■ giltzarria

- Autodeterminazio eskubidea

### ■ prozedura (bide bat baino gehiago)

- Egungo ordenamendu juridikoan sakontzea, Gernikako Estatuaren eta Espainiako Konstituzioaren Xedapen Gehigarrien bidez eskubideen lorpen faktikoa eskuratzeko
- Negoziazio politikoa eta Espainiako Konstituzioaren zeharkako erreforma («autodeterminazio eskubidearen onarpen zehatza izan gabe bere erabailpena ahalbidetuko luke»)
- Autodeterminazio eskubidea onartzea (Espainiako herriaren erreferenduma eskatuko luke)
- Euskal Legearen bidez Subiranotasuna aldarrikatzea, Nazio Batuen Erakunde Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Itun eta Batzar Orokorren Adierazpenen babesean (bide hau erabiliko litzateke beste bideetatik negoziatio politikoa agortutzat ematen denean)